

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Basabe Kortabarria, Aralar taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez** Lehendakariari, “**euskararen inguruan**” egindako adierazpen publiko eta publikatuei buruz, osoko bilkuran erantzuteko.

ZIOA

Apirilaren 25ean argitaratutako elkarrizketa baten Patxi Lopez lehendakariak hauxe zioen: “*Yo es que soy de la margen izquierda, una zona donde no se ha hablado euskera nunca. Y el euskera es complicado. Además, hago muchas piras*”.

Kontua da euskara, autonomia estatutuan jasotzen denaren arabera, hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomia Erkidegoan, zeinaren lehendakari den Patxi Lopez jauna, eta horregatik ari dela Lehendakari jauna guztion dirutik euskaraz ikasten.

Horren aurrean, hurrengo interpelazioa egiten dio Patxi Lopez Alvarezi:

INTERPELAZIOA

Azal dezan zer esan gura duen “Ezkerraldean inoiz ez dela euskaraz egin” dioenean, nahiz “euskara konplikatua” dela ere, baita zergatik egiten dituen piper asko, guztion dirutik ordainduriko eskoletara joateari utziaz.

Gasteizen, 20010eko apirilaren 27an

Mikel Basabe Kortabarria
Aralar taldeko legebiltzarkidea